

Euskal AEKo Administrazio Publikoen ez-finantzetako baliabideak %0,1 gutxitu ziren 2013an

Defizita aurreko urtekoa baino %5,7 txikiagoa

Euskal AEn ari diren Administrazio Publikoen (Euskal Administrazioak, Estatuaren Administrazio Lurralderatua, Gizarte Segurantzaren Lurralderatua) multzo sendotuak kudeatutako ez-finantzetako baliabideen kopurua 23.820 milioi izan ziren 2013an, 2012an baino %0,1 gutxiago, Eustaten arabera.

1. taula: Euskal AEko Herri Administrazioen baliabide-enplegu ez-finantzetakoak (milaka euro). 2013

	2013	2013/2012 (%)
Finantzazkoak ez diren baliabideak	23.819.740	-0,1
Merkatuko ekoizpena eta azken erabilera propioarentzako ekoizpena	1.052.827	-7,2
Merkatuko ez den produkzioaren ziozko ordainketak	216.956	3,5
Ekoizpen eta inportazio zergak (kobratzekoak)	6.888.685	4,1
Jabetzaren errentak	287.373	-32,2
Errenta, ondare eta abarren gaineko zergak	6.123.049	-4,4
Gizarte-kotizazioak	7.937.293	-0,9
Bestelako transferentzia arruntak	1.220.791	27,7
Kapitalzergak (kobratzekoak)	299.599	97,1
Inbertsiorako laguntzak (kobratzekoak)	81.016	-80,8
Bestelako kapital-transferentziak (kobratzekoak) (1)	-287.849	-42,1
Finantzazkoak ez diren erabilerak	25.676.426	-0,5
Soldatuen ordainketa	6.420.898	2,7
Bitarteko kontsumoa	3.381.876	-6,2
Dirulaguntzak (ordaintzekoak)	453.152	-0,5
Produkzioaren gaineko beste zerga batzuk	34.716	13,7
Jabetzaren errentak	319.472	3,7
Errentaren gaineko zerga arruntak (ordaintzekoak)	10.342	-
Espezieko gizarte-transferentziak ez diren gizarte-prestazioak	10.562.032	3,2
Gauzazko gizarte-transferentziak Merkatuan erositako ekoizpena	1.954.690	-3,5
Bestelako transferentzia arruntak	566.957	124,2
Kapital Eraketa Gordina	1.554.269	-14,2
Kapitaltransferentziak (ordaintzekoak)	406.422	-48,0
Ezfinantzetako aktibo ez ekoizten erosteko garbiak	11.602	-76,2
Aurrezki garbia	-583.303	344,6
Finantzatzeko ahalmena(+) beharrezana(-)	-1.856.686	-5,7


(1) Barne ditu nekez lortuko den diru-bilketagatiko kapital-transferentziak

Iturriak: Eustat. Administrazio publikoen kontuak. SEC2010

Ez-finantzetako baliabideetara gehien ekartzen duten sailak Gizarte kotizazioak (%33,3) dira; ondoren Ekoizpen eta inportazio zergak (%28,9), eta Errenta eta ondare zergak (%25,7). Gizarte kotizazioak %0,9 murriztu ziren 2012aren aldean, Errenta zergak %4,4; Ekoizpen eta inportazio zergak %4,1 gehitu.

Ez-finantzetako enpleguak %0,5 gutxitu ziren 2013an aurreko urtearen aldean; pisu handienekoa, Gizarte kotizazioak (pentsio-gastua eta gizarte laguntzako beste prestazio batzuk), enplegu guztien %41,1 2013an, %3,2 gehitu zen 2012aren aldean. Soldatuko ordainketa gehi Bitarteko kontsumoa (enpleguen %38,2) %0,6 gutxitu zen. Garrantzian hurreneko bi sailak: Gauzazko gizarte transferentziak, alegia merkatuan erositako ekoizpena, kontzertu-gastua barne (guztiaren %,7,6, %-3,5 2012aren aldean), eta Kapital Eraketa Gordina (%6,1, %-14,2).

1. grafikoa. Euskal AEko Herri Administrazioen finantzaketa beharren bilakaera (milaka euro)



Iturria: Eustat. Administrazio publikoen kontuak. SEC2010

Ez-finantzetako Baliabide eta Enpleguen arteko saldoak 1.857 milioiko finantzazio-beharra ekarri zuen 2013an, 2012an baino %5,7 gutxiago.

Euskal AEko Administrazio Publikoen finantzazio-beharra BPGren %-2,8 izan zen 2013an, ehuneko 0,1 puntu gutxiago 2012an baino, murriztuz inguruko nazioetan bezalaxe.

Erakundeak aztertuz, Estatuaren Administrazio Lurralderatuak 744 milioiko superabita izan zuen 2013an eta Gizarte Segurantzia Lurralderatuak 2.062eko defizita.

Euskal Administrazioetan finantzazio-beharra 538 milioi izan zen 2013an, 2012an (1.033) baino 495 milioi gutxiago. Eusko Jaurlaritza diren erakundeen finantzazio beharra 2012ko 938 milioietatik 2013ko 751tara gutxitu zen. Arabako foru eta udal administrazioetan 2012ko 64 milioi positiboetatik 2013ko 8 negatiboetara; Bizkaian 2012ko 104 milioi negatiboetatik 2013ko 112 positiboetara; Gipuzkoan 55 negatiboetatik 108 positiboetara.

2. taula: Euskal AEko herri administrazioen aurrezki garbia eta finantza-gaitasuna (+) edo finantza-beharra (-) (milaka euro). 2013

	Finantzazko ak ez diren baliabideak	Finantzazko ak ez diren erabilerak	Aurrezki garbia	Finantzatze ahalmena(+) / beharrizana(-)
Herri Administrazioak	23.819.740	25.676.426	-583.303	-1.856.686
Estatuaren administrazioa + Gizarte Segurantzza Lurralderatua	10.084.674	11.403.170	-904.463	-1.318.496
Estatuaren administrazioa Lurralderatua	2.329.340	1.585.622	1.142.399	743.718
Gizarte Segurantzza Lurralderatua	7.755.334	9.817.548	-2.046.862	-2.062.214
Euskal administrazioak	15.670.435	16.208.625	321.160	-538.190
Eusko Jaurlaritza	9.067.024	9.817.541	-320.963	-750.517
Araba/Álava	2.351.321	2.359.584	38.176	-8.263
Bizkaia	7.482.415	7.369.973	433.567	112.442
Gipuzkoa	4.801.853	4.693.706	170.380	108.147

Sartutako erakundeak, ikusi ohar metodologikoa 2013

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen kontuak. SEC2010

Administrazio Publikoen **azken gastuaren egituran**, Kapital Eraketa Gordinaren parte-hartzeak gutxituz jarraitu du, 2012ko %13,8tik 2013ko %12,3ra. Azken Kontsumoaren Gastuaren parte-hartzea gehitu egin da, 2012ko %86,2tik %87,7ra. Azken Kontsumoaren Gastua batuketara da; batetik, administrazioen gastua ondasun eta zerbitzuen ekoizpenean; bestetik, merkatuko ekoizleek familia-etxeentzako ekoiztutako ondasun eta zerbitzuen erosketara (gauzazko gizarte transferentziak).

3. taula. Herri administrazioen azken eskaria. Euskal AE (milaka euro). 2010-2013

	2010	%	2011	%	2012	%	2013	%
Herri administrazioen azken kontsumoko gastua	11.874.061	81,5	11.798.770	83,6	11.295.409	86,2	11.128.539	87,7
Herri administrazioen kapital finkoaren eraketa gordina	2.694.585	18,5	2.321.491	16,4	1.811.098	13,8	1.554.269	12,3
Barne eskari publikoa	14.568.646	100,0	14.120.261	100,0	13.106.507	100,0	12.682.808	100,0

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Administrazio publikoen kontuak. Prentsa-ohar gehiago

Administrazio publikoen kontuak. Datu-bankua